

BALOREZKO PROPOSAMENAK

Gure enpresak eskainiko duen zerbitzua patinete elektrikoaren alokairua izango da. Zerbitzua Donostia aldean burutuko da eta gure bezeroei abantaila asko emango dizkie. Donostian garraio zerbitzu gutxi daude eta gehienak kalitate txarrekoak dira, adibidez Dbizi zerbitzua gero eta kexa gehiago dauzka. Kalitate txarreko bizikletak, bizikletan ibiltzeko denbora gutxi...guk emandako zerbitzua kalitatekoa izateko akats guzti hauek kontuan hartu ditugu. Hasteko patinetearen alokairua egiteko geltoki gehiago egongo dira, 3 geltoki auzoko (Donostian). Gainera patineteekin ibiltzeko denbora maximoa luzeagoa izango da, ordu bat gutxi gorabehera. Esan beharra dago ere gure zerbitzuak segurtasuna eskainiko duela. Patinete bat hartzerakoan derrigorrezkoa izango da kasko baten alokairua egitea. (Kaskoaren kostua, patinetearen alokairua ordaintzerakoan sartuko da). Gure zerbitzua oso praktikoa izango da lanera joateko, Donostia bisitatzeko...gainera gure patineteak saski bat edukiko du aurrean erosketak egiterakoan edo motxila edo poltsa eramaterakoan saskian sartzeko eta ez molestatzeko.

